

IKUSKIZUN BERRIA
HIKA TEATROA . 2024

ATEAREN BESTALDEAN

A woman with long brown hair and a purple bow, wearing a patterned short-sleeved shirt, stands on the left side of the frame, looking upwards. In the center, a wooden door is set against a dark blue background. A purple balloon is tied to the top of the door, and another purple balloon and a white balloon are on the floor in front of the door.


35 urte SORTZEN
FAMILIA OSOARI ZUZENDUA . 4+ AURRERA



ISTORIO BERA KONTATZEKO BI MODU

Piezaren bi bertasioak egitea aurre ikusten dugu

HIKA Teatroak eta Agurtzane Intxaurragak bi esparruak ezagutzen dituzte. Urteak daramatzate aretoko eta kaleko antzerkia, biak egiten. Horrek ematen dien eskarmentuarekin, eta bertasio bakoitzaren bihotza eta motorra BAKARDADEA izan arren, espazio bakoitzak dituen ezaugarriak eta eskaintzen dituen baliabideak balorean jarrita, istorio bera kontatzeko bi modu, bi bertasio osatuko dituzte.



ARETORAKO BERTSIOA

IRAUPENA . 55 MINUTU



FAMILIA OSOARI ZUZENDUA . 4+ AÛRRERÁ



IRAUPENA . 45 MINUTU

KALEKO BERTSIOA

FAMILIA OSOARI ZUZENDUA . 4+ AURRERA

HIKA TEATROA

2024ean HIKA TEATROAK 35 urte beteko ditu

Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean, poesia bisuala eta errebeldia eszenikoa neurri berean maite dituen emakumea. HIKAren produkzioek izaera sozial nabaria dute, eta ikusleak beren buruekin gatazkan jartzen saiatzen dira.

35 urte ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula izango

HIKA antzerki garaikidea da, erronka artistikoen etengabeko bilaketa eta berritzea, ekoizpen berri bakoitza etiketak uxatzeko aldarri. Antzerkiak gain, zirkua, musika eta dantzak toki nabarmena hartu dute bere sormen lanetan, diziplina guztiei atea irekitzea eta emaitza integral bat eskaintzea beti berritzen egotea dela sinetsita.

35 urteak ospatu nahi ditugu

Ibilbide luze honetan, HIKA teatroa kulturak berak bizi izan dituen aldaketa eta moldaketetara egokituz joan da. Hala eta guztiz ere, beti eutsi dio bere izaera sozialari, arte eszenikoak gizarteko arazoak lantzeko eta hausnarketa bideak irekitzeko bidea direla konbentzituratuta.

Hastapenetatik gizartean pil pilean egon diren gaiak landu ditu: Etxebizitzaren arazoa (Eta ohea egin gabe, 1989); Intsumisioa (Chaplin tropela, 1990); Guggenheim efektua (Ongi etorri etsai hori, 1993); Genero indarkeria (Hitzak, 2012); Tradizioa eta erlijioaren pisua gizarte heteropatriarkalean (Koaderno Zuri, 2016); Migrazioaren errealitate bortitza (Tonbola, 2020). Gaur egungo gazteei ahotsa emango dien kaleko dantza ikuskizuna, (Gazte, 2020); Adin txikikoei sexu abusuak, genero identitatea, (Tarara 2021)

30etik gora IKUSKIZUN propio, 30 EKITALDI nahierara, 2 BITARTEKARITZA proiektu propio

HIKAre ibilbide honetan, ekoizpen propioez gain, nahierara egindako ikuskizunek ere pisua izan dute azken urteetan. Gehienetan erakundeetatik etorri da eskaera, eta HIKAk memoria historikoa landu du batez ere haietan. Guztiak diziplina anitzak batu dituzten ikuskizunak izan dira, profesional handiekin eginak. Besteak beste: Ez gaude konforme. Lourdes eta hamaika lore (Lourdes Iriondo artistaren ibilbide profesionalari omenaldia. EITB, 2020); Afrika, aniztasunaren itsasoa (2018ko Olatu Talkaren inaugurazio ekitaldia. Donostia Kultura); Gernikako bonbardeaketaren 80. urteurrena (2017. Gogora Institutua); Trenak ekarri, gerrak eraman (Gerra Zibileko garaiko trenbideetako langileei omenaldia. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017).

Kultur politikek eta gizarte honek daukan aniztasuna kontutan hartuta, kultur ekosisteman eragile aktibo izan nahi izan du. Horren harira, azken bost urteetan bere ekoizpen guztiek publiko berri eta aktiboak sortzeko mediazio eta sentsibilizazio programak eraiki ditu. Guztietan herriaren edo herriko kolektiboen partaidetza bultzatuz.

Zalantzarik gabe, Zapata Berriak (Astigarragako Udalarekin elkarlanean, 2020) eta Txalostean (Lezoko ukdalarekin elkarlanean, 2023) proiektuak dira bitartekaritza lan honen erakusgarri garbienak.

Euskal kultura & Euskal antzerkia bizi eta biziarazten.

Aipatu beharra dago ere HIKAk euskal kulturarekin eta euskararekin daukan konpromisoa. Euskaraz bizi da eta euskaraz sortzen du. Badu adar bat, Oinkari Dantza Taldearekin elkarlanean, bereziki euskal kultura biziarazteko eta hedatzeko helburu duena. Itsasoaren emazteak (2013); Sagartu (2017) eta Gazte (estreinaldia, 2021) ikuskizunak horren adibide dira. Euskal dantzatik abiatuta, dantza garaikiderako bidea jorratzen ari dira lengoia eta estetika propioa eraikiz.

“Kulturaren etorkizuna ezinezkoa izango da emakumeek kulturak eskaintzen dituen sektore guztietan parte hartzeko aukera ez badute. Sortzaile moduan, ekoizle moduan, herritar eta kontsumitzaile moduan, alegia”.

Ammu Joseph, 2018.



ATEAREN BESTALDEAN

ATEAREN BESTALDEAN ikuskizunaren hazia, 2023ko urtarrilean kokatzen dut, Debatik proiektu bat ad hoc egiteko eskatu zigutenean. Egun horretan bertan, koaderno berri bat erosi eta zirriborro batzuen ondoren, ordu pare batera, hauxe idatzi nuen bi hitzetan: neska eta atea.

Goiz horretan bertan SANDRA Fdez.AGUIRREri deitu nion data gordetzeko. -ATE bat eta zeu Sandra. Atea irekitzen duzun bakoitzean zure begien bistara mundu berri bat agertuko da, zer hori zer den, lan eginez erabakiko dugu- Baina horrez gain, hauxe ere esan nion: - zuzeneko musikaren lan egingo dugu, musikaren bidez sortuko zaizkigun mundu horiek zuk aparte, publikoak ere entzumenetik ikusi ahal izateko-

Aspalditik neukan ate bat buruan, hain juxtu, Koadernoia Zuri ikuskizuna egin genuenetik, Gurpilak jarri genizkion ateari eta tokiz aldatzen genuen bakoitzean espazioan eraldaketa gertatzen zen eta ikuspuntu interesgarri berri bat ireki. Orduko hartan, atearen atzean norbait zegoen ezkutuan. Oraingo honetan atearen beste aldean dena geratuko da agerian: bidean galdutakoen oroitzapenak, berreskuratutako nahi diren bizipenak eta uneak, eta garrantzitsuena, desioez eraikitako bizitza berri bat.

Bizitza ELKARREKIN ospatzen jarraitzeko beharrari egindako kantua

Ikuskizun hau TESTURIK GABEA da, ZUZENeko MUSIKAREKIN, FAMILIAK ELKARREKIN IKUSTEKO MODUKOA ETA PARTE HARTZAILEA. Bereziki 4 eta 8 urte arteko umeei zuzendua dago, eta pertsona guztiok haur eta heldu, egoera okerrenak gainditzeko dugun gaitasunari buruz hitz egiten du.

Ate bat ireki eta zeharkatu; ate bat ireki eta gonbidatu. Bata zein bestea itxaropen eta alaitasun ekintza txikiak dira, eta egite erraza dirudien arren, hainbatetan ezinezko bihurtzen dira.



SINOPSISIA

Pertsona guztiok, batez ere ume eta gazte aroan, era berezian bizi dugu gure urtebetetze eguna. Garai horietan zain zaude, eguna noiz iritsiko, familiaren ospatzeko, lagunekin, eskolan edota lanean ere. Goizean goiz belarriak tiraka gorrituta, hamaika zorion hitz, zorion kantu, gozoki, txalo zaparrada, besarkada. Urtez urte emozio berbera pil-pilean.

Nork ez du etsipena sentitu, ordea, hainbeste estimu duzun pertsona horrek zure urtebetetzea ahaztu duenean? Are okerrago, ezusteko bategatik ezingo direla zure festara etorri esaten dizutenean; edota eskolan inork gutxi bere festara gonbidatzen zaituenean?

Urteak betetzea, gertaera berezi eta hunkigarria da.

Gure istorioko neska bakarrik dago. Ez du inporta zergatik, garrantzitsuena da berak egoera horri aurre egin nahi diola. Ez du bakarrik egon nahi hain egun berezian, eta atea ireki, eta bila abiatzea erabakiko du. Familia eta lagun artean sentitzeko beharrak bultzatuta, bizi-bidai batean murgilduko da, eta musika eta imajinazioaren bidez, toki ezezagunetara iritsi. Bizitzaz eta zirrarez betetako hainbat tokietara eta hala, ikusleak, poesiaz beteriko abentura horren protagonista bihurtuko dira.

Neska, mendiak eta hiriak ibiltzen ditu bere atarekin, ibaiak eta basamortuak zeharkatu, eta itsasoaren hondoan galdu. Bat-batean, ordea, atea gurutzatzean, bilatu nahi zituen pertsonak aurkitzeko gai da, eta horrela, bere urtebetetzea ospatzeko moduan sentitzen da. Berriz ere zoriontsu.



ZUZENDARITZA ETA DRAMATURGIA

AGURTZANE INTXAURRAGA

Emakume bizkaitarra (Orozko 1966) eta antzerkigile donostiarra (34 urte bertan lanean). Informazio Zientzietan lizentziaduna (EHU, 1992) eta Kultur Kudeaketako Masterduna (UOC 2022). ANTZERTIn diplomatua (1989). Urte berean HIKA Teatroa sortuko du. Ordutik, eszenatokiak bihurtuko ditu bere pasio eta ofizio. TARARA /LA TARARA (2022) eta TOTO (2023) izan dira HIKArekin zuzendu dituen azken lanak.

Halaber, HIKAren eskutik, erakunde publiko eta entitate pribatuentzat hainbat ekintza eta ekitaldi ekoiztu eta zuzentzen ditu. Azkena: Eskerrik asko etortzeagatik (Itun Soziala 2022. Zarautzeko udalerrian migrazioaren arloan garatutako jardunbide egokiei aitormena. Baleuko 2022).

Antzerkiaz gain, telebistan eta zineman ere lan egin du. Telebistan EITBko Goenkale fikziozko saioan aktore zuzendari eta gidoilari lanak bete zituen (1994-2012). 2016an animaziozko bere lehen luzemetraia zuzenduko du: Teresa eta Galtzagorri (Dibulitooon Studio). Egun, ekoiztetxe berberarekin bigarren animazioko film luzea zuzentzear dago (urria 2023).

Isiltasuna da bere doinurik gogokoena.



SANDRA FDZ.AGUIRRE

Emakume eta artista handia da. Aktorea da, abeslaria, musikaria, titiriteroa, interpretea eta sortzailea. 2018an Txarriboda / El Bodorio ekoizpenean berarekin lan egiteko aukera izan nuen eta goian esandako guztia egia zela ikusi nuen. Gorputzaren eta ahotsaren ikaragarritzko kontrola dauka. Inprobisatzeko abilitade berezia. Baina zerbait aipatu beharko banu, hauxe esango nuke: eszenan gozatu egiten du eta bertan are handiago egiten da.

Horrexegatik berarekin lan egitea bermea da.

UNAI CELAYA

Unairen zuzeneko bibolinaren musikaren alde egin dugu. Gorakadaren Zuhaitzak landatzen zituen gizona ikuskizunean ikusi nuen lehen aldiz lanean eta lehenengo unetik, atentzioa deitu zidan. Musikari gazte honek soinuz gain, ahotsa ateratzen dio bibolinari eta badaki zer den dramaturgia baten menpe lan egitea. Bide beretik, ikuskizun honetan bere lana musika interpretatze hutsetik aldenduko da. Sandra Fdez. Aguirreren pertsonaiaren luzapena izan eta ikuslea nahi dugun toki eta emozioraino eramatea izango du erronka.



FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza eta Dramaturgia: Agurtzane Intxaurreaga

Aktorea: Sandra Fdez.Agirre

Musika zuzenean: Unai Celaya

Musika konposaketa: Unai Celaya

Argiztapena (aretoko bertsioan): Xabier Lozano

Espazio eszenikoa: Agurtzane Intxaurreaga

Jantziak: Xabier Mujika

Promozio bideoak: Ugaitz Albisu

Grafika: Nagore Martínez

Argazkiak: Renata L.Etanowski

Teknika: Eraginstac

ekoizpen exekutiboa: Hika Teatroa

Komunikazioa: Nagore Martinez

Administrazioa: Asun Etxeberria

Banaketa: Hika Teatroa (Nagore 633252200 / Agurtzane 656792501)



IKUSKIZUNAREN EZAUGARRIAK

Familia osoari zuzendua

Testu gabea

Gorputzaren mugimenduan eta musikaren dramaturgian
oinarritua

Musika zuzenean

Partehartzailea

Poetikoa

ARETORAko gutxieneko neurriak: 7 x 5 x 5

KALERAko gutxieneko neurriak: 10 x 8

**Ikuskizunarekin batera sentsibilizazio eta bitartekaritza
ekintza bat egin daiteke
(aukeran)**



HIKA
TEATROA

Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa

T 633 252 200 - 656 792 501

hika@hikateatroa.eus

www.hikateatroa.eus